

Noson

39

IGANDEKO BERRIA
2014ko ekainaren 8a

Berridazteko aukera

Hitzarmen berria negoziatzen ari dira euskal erakundeak eta Guggenheim fundazioa, aurrekoaren epea amaitzear delako • 40-42

Literatura • 41

Ma Jian idazleak gogoeta egin du duela 25 urte Tiananmen plazan gertatuaz

Zinema • 46

Egungo Espainiaren alegoria bihurtu da Victor Morenoren 'Edificio España' filma

Musika • 48

Chrissie Hyndek 'Stockholm' kaleratuko du bihar, bakarkako lehen diskoa

TITANIOA BIHURRITZEN DUEN PAPERERA

Aurten jokatu da Bilboko Guggenheimen etorkizuna. Hogei urtez indarrean egon ostean indarririk gabe geratu da euskal erakundeek Guggenheim fundazioarekin egindako hitzarmena, eta tratua berria negoziatzen ari dira orain. Sinatutakoak ezarriko du hurrengo urteetako araua, eta, adituen ustez, bada zer hobetua.

Iñigo Astiz Bilbo

Azalekoa baino ez da narretasuna; sakonean, kiribiltzen ari da Bilboko Guggenheimeko titanioa. Aurten jokatu da museoaren etorkizuna. Zarata handirik gabe doa oraingo eztabaida, baina garrantzitsua da orain negoziatzea. Hogeitau urterean ostean, aurten amaituko da Bilboko Guggenheim museo munduko gainontzeko Guggenheim museoekin lotzen duen hitzarmena, eta tratua berria negoziatzen dabilta Solomon R. Guggenheim fundazioa, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundia. Pozik daude guztiak proiektuak orain arte jasotako emaitzarekin, eta ez da zalantza handirik: berriro egingo dute hitzarmena. Mantendu egingo du abizena Bilboko Guggenheim museoak. Baina hogeitau urteko ibilbidean maiz aipatu da autonomia handiagoaren beharra, eta euskal arteari atek zabalago irekitzeko premia, adibidez. Eta garrantzitsuak izango dira horregatik hitzarmen berriaren nabardurak. Paper horrek moldatuko du titanioa hurrengo urteetarako. Sinadura udarako aurrekusten bazen ere, litekeena da urte bukaera arte ez iristea, atzo museoko iturriek adierazi zuten.

«Desorekatua». Halakoa da orain arteko tratua. Edo hala deskribatu du bere liburuetan Guggenheim kasua sakon ikertu duen

Joseba Zulaika ikerlariak. Eta azaltzen du zergatia. Haren hitzetan, hitzarmen beharrez ziren bi aldeak 90eko urteetan. Sukurtsalizazio bidez eman nahi zion buelta orduko gainbeherari Guggenheim fundazioak, eta Euskal Herriak zuen bira ekonomikorako moldatu nahian eta ikur mediatico berri baten bila zebiltzan euskal erakundeak. Labur: titanioan urtu nahi zuten hedabideetan euskal gatazkak hartu zuen zama. Eta antisia horien artean Zulaiak aipatutako «desoreka». Hori da haren tesia. Egun bestelakoa da negoziatze mahaiko kideen egoera, eta ikusi egin behar okerak zuzentzeko gai izango diren.

Ez da gardengia titanioa, ordea. Indarrean den hitzarmena ez da publikoa, eta han-hemenka ateratzen diren datuak dira, beraz, hartaz jakin daitekeen guztia. Solomon R. Guggenheim fundazioak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatu zutela. 20 milioi ordaindu zituztela Guggenheim markagatik. Aurten amaituko dela kontratua. Eta ez asko gehiago. Eta iluntasun hori da Haizea Barcenilla arte kritikariaren kritika nagusietariko bat. «Sekretismoa Guggenheim museoaren parte garrantzitsua da. Hitzarmena ez da publikoa, eta pentsatu egin behar litzateke ea hori zer iruditzen zaigun. Finean, erakunde publikoek egindako hitzarmena da, eta larritzeko modukoa da hura ez ezagutzea».

Gardentasuna eskatzen du, eta baita kudeaketaren eta erosketen politikaren gaineko kontrol siste-

ma zorrotzagoa ere. Hori oinarria. Baina dioenez, gainera, txikia da Bilboko Guggenheim museoak euskal kulturari egin dion ekarpena. Euskal erakundeek azken urteetan herritarren diruz bildu-



Sekretismoa Guggenheimen parte handi bat da; orain arteko hitzarmena ez da publikoa, eta larritzeko modukoa da hori»

Haizea Barcenilla
Arte kritikaria

«Lehen pentsatzen nuen autonomia falta zela, baina gero eta argiago dut arazoa gurea dela: ekimena falta da»

Ismael Manterola
Arte kritikaria

«Autista xamarra da museoak, harreman handiagoa du babesle ekonomikoekin, sare artistikoko kideekin baino»

Maria Mur Dean
Consonni arte ekoizpen etxeko kidea

«Kulturak ekonomia susperrezakeen ideia indarrean zen hitzarmena sinatu zenean; orain beste une batean gaude»

Miren Jaio
Bulegoa Z/B arte eta jakintza bulegoko kidea

marako erositako 128 obreren artean, adibidez, %30 dira euskal sortzaileek sortuak. Eta azken urteetan gora egin du euskal arteari eskainitako erakusketen kopuruak ere. Gutxi deritzo horri Barcenillak, eta ez du keinu horien atzean borondate argirik ikusten. «Eus-

kal artisten erakusketak egin direnean, beti izan da konplizterik». Hitzarmenean hartu-eman hori handitzeko gutxienekoak ezarri behar liratekeela dio horregatik. «Bilbora heldu dira AEBetako gauzak, baina kanpora inoiz ez dira heldu Euskal Herriko sorkuntzak. Inoiz ez da pentsatzen erakusketak horiek kanpora eraman daitezkeenik. Ez dute uste beste erakusketen maila ematen dutenik. Horren bidez zeharka onartzen da Bilbo dela AEBen satellite bat, eta hemen ez dagoela kulturarik».

Alde du txintxina, halere. Onartzen du hori Barcenillak, eta ezaguna da museoaren arrakasta turistikoak. Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak aurkeztu zituen datuak orain hila-bete batzuk, eta posizioa zen emaitza. 2.173 milioi euro sortu ditu museoak zabalik egon den denboran. %70eko autofinantzaketara heldu zen 2012an, eta 15 milioi bisitari jaso ditu, orotara. Garaipenaren berme gisa aurkeztu dituzte erakundeek zenbaki horiek. Baina arrakasta ekonomiko horrek isildu egin du eztabaida artistikoa. Eta hor dago museoaren korapilo nagusietariko bat.

Argia da, adibidez, Ismael Manterola arte kritikari eta BERRIAKO

zutabegilearen balorazioa: arrakasta ekonomikoak izan du Guggenheimek, baina ez arrakasta kulturalik. «Bilboko arte museo bat baldin bada, arte zuzendari bat izan behar luke. Hitzarmenarekin hori lortuko balitz, niretzat aurrerapen bat litzateke. Hona ekarri egiten dira erakusketak, beste museoetan edo beste erakundeekin egindako hitzarmenen bidez, baina bertan sortutakorik ez dut ezagutzen».

Arazo labelduna

Hitzarmenarekin gauzak aldatuko diren esperantzarik ez du Manterolak. Bilboko museoak nortasun propiorik ez duela da arazoa, eta, areago: ez duela nortasun propiorik eduki nahi ere. «Intuizioa da. Lehen pentsatzen nuen autonomia falta zela, orain pentsatzen dut ezetz. Gero eta argiago dut problema gurea dela. Ekimena falta da. Eta ekimena ez da sustatzen, sakonean ez dutelako nahi. Ekimena balego, arazoak sortuko lirateke: aurrekontua handitu, beste antolaketa bat sortu, erosketak politikak aldatu... Zuzendari artistiko bat sartu gero, ez da izango iraultza, baina izango da museo bat. Baina problemak sortzen dizkiete museoek politikari. Hori ikusten da Espainian batez ere. Eta hemen ere hala gertatzen da. Euskal Herria *españolari* da horretan asko».

Autonomia. Behin baino gehiagotan atera da ideia hori Bilboko Guggenheim museoari buruz ari zirean. Aipatu dute haren beharra artistek. Eskaera egin dute kriti-





Bilboko Guggenheim museoaren kanpoaldeko titanio xafra bihurrien irudia. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

kariek. Eta politikariek ere onartu dute behin baino gehiagotan defizita. 2012an izan zen, adibidez, museoari buruzko eztabaida Gasteizko parlamentuan. PSE, PP eta UPDK onartu zuten Guggenheim markarekiko askatasun handiago eskatzen zuen dokumentua orduan. Iradoki zuten, Bilboakoago nahi zuten, Bilboko Guggenheima, eta ez hain Guggenheim. Urrundu egin nahi dute frankizia ereditutik, eta fundazioaren programazioaz askeago aritzeko aukera proposatu zuten. EAJ testu horren aurka agertu zen legebiltzarrean, baina onartu egin zuen Bizkaiko Batzar Nagusietan. Orokorra da inpresioa, halere. Eta

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak ere museoaren «autonomia ziurtatu beharra» aipatu zuen iaz. Orokorrean arteari bultzada handiagoa eman beharra, eta baita euskal artea sustatu beharra ere, zehazki. Ikusi egin behar orain, ordea, negoziazio mahaian zer indarrez defendatuko dituzten ideia horiek.

«Museo hau sortzaileen beharretatik oso urrun dago». Ozen egin zuen oihartzun Iñaki Garmendia artistaren kexak Guggenheimeko auditoriumean iaz. *Prozesua eta metodoa* erakusketa aurkezteko zen bertan sortzailea, Erlea Maneros Zabala eta Xabier Salaberria artistekin batera. Ha-

serre egin zuen alde aurkezpenetik, ordea. «Hau ez da nik egin nahi nuen erakusketa». Desagertuta dagoen Oteizaren pieza bat birsortu zuen erakusketarako. Baina museoako arduradunek plagioa izan zitekeela, eta legezko arazoak izan zitzaieela iradoki zioten. Pieza desagertuta zegoela azaldu zuen Garmendiak, eta ezinezkoa zela plagioa izatea. Batek tira eta besteak bultzatzen, pieza erakusketatik kentzea erabaki zuen Garmendiak, azkenean, eta orduan plazaratu zuen kexa. Babesgabe sentitu zen. Nolabait, pieza kentzera bultzatu zuten antze-man zuen. Orduan kritika: «Museo sortzaileen beharretatik oso

urrun dago». Egunean bertan egin zuen atzera artistak, baina hor gelditu zen oihartzuna.

Autismo zantzuak

«Egia da museo autista xamarra dela», aitortu du Maria Mur Dean Bilboko Consonni arte ekoizpen etxeko kideak. «Gehiago murgildu behar luke inguruko sarean». Kontua ez da noizean behin euskal artistei eskaintako erakusketak bat zabaltzea, Mur Deanen ustet, baizik eta hirian elementu aktiboago bilakatzea. «Guggenheimek badu Museoaren Lagunen figura, eta 6.000 bat lagun dituzte; badu, beraz, sostengu sozialik. Ezin da esan ez dutenik hiriarekin

harremanik, baina hiriko sare artistikoarekin harreman txikia du. Harreman handiagoa dute babesleekin eta dirua ematen dieteneekin, artegintzaren sarean gabiltzanokin baino». Gertuko zaiotz mintzo da Mur Dean. «Uste dut denok pentsatu behar dugula zein den panorama kultural onea denontzat. Elkarrekin dugun hori izan behar dugu gogoan bakoik aurrera egin dezan. Eta horretarako beharrezkoa da ekosistema aberatsa lortzea. Bakoitzak berea egingo du, baina ongi legoke ideia hori presente edukitzea». Funtsean bat dator Mur Mantero-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)



Itur mendi

PROMOZIO BERRIA

Anziolan, Hernaniko erdigunetik 5 minutura, Iturmendik auzo berri batean lasaitasunaz gozatzeko aukera emango dizu, naturaz inguratuta eta ondo komunikatuta.

Berehala eraikiko dugu. Lehen etxebizitzak salgai.
Kalitate bikaina. 2 eta 3 gela, terrazak hegoaldera begira.

943 42 95 21
INFORMAZIOA ETA SALMENTA: www.etxeonenak.com

 **etxe onenak** URKILLA S.L.

(Aurreko orrialdetik dator)

larekin eta Barcenillarekin. Zuzendaritza artistiko baten beharra aipatu du berak ere, eta kritikatzeko du ekimen falta eta eskual artearen presentzia eskasa. Baina ez da dena ikatz.

Onartu du Guggenheimek hiriarri eman dion bultzada. Txalortzen ditu zenbait erakusketa. Aitortzen dio balio turistiko. Baina sutu egiten du sakralizazioak. «Lehen hiri honetan baziren inolaz ere kritikatu ezin ziren bi gauza: Begoñako Ama Birjina eta Athletic. Orain hiru daude: Begoñako Ama Birjina, Athletic eta Guggenheim». Eta garrantzitsua da kritika, Mur Deanen hitzetan. «Oso garrantzitsua izan da zentzu askotan museo honen sorrera eta jarraipena hiriarentzat. Baina baditu *baina* asko ere, eta horiek konpontzen saiatzea da kontua. Museoak sakralizatzen saiatu dira, ordea, eta niri hori arriskutsua iruditzen zait, kritika neutralizatzen duelako». Ikurra totem ere bilakatu dela dio Mur Deanek, azken finean. Eta totema, tabu.

Autonomia aipatu du Miren Jaiou Bulegoa Z/B arte eta jakintza bulegoko kideak. «Autonomia bai, baina autonomia zertarako? Ikuspegi edo irizpide bat ezarri ahal izateko, baina horretarako, ikuspegi eta irizpide bat eduki behar da. Eta oraindik lan handia du museoak egiteko. Negozio eta kudeaketa ekonomikoari begira batu ikuspegi hori, zuzendaritza indartsu bat du, baina lan handia falta du artearekiko izaera propio bat izatera heltzeko». Jaiok ez du ikusten bultzada argirik, eta museoak egindako erosketak jarri ditu adibidetzat. «Bilduma hori da azkenean geratuko zaiguna. Bildumak sortzen du etorkizunari begirako kontaktuzun bat. Eta webgunean agertzen denaren arabera, orain arte sortutako bilduman ez dut ikusten oso argi nondik norakoa den kontaktuzuna. Irizpide bat behar da. Gero ger-

BESTE ZENBAIT GUGGENHEIM

Helsinki.
Sedukzio jolasa

Ezetz esana dio Helsinkik Guggenheim museoari. 2012an zortzi boto izan zituen aurka, eta zazpi alde. Baina ez du horrek geldiarazi Solomon R. Guggenheim fundazioa. Jarraitzen du bere sedukzio jolasak. Baldintza hobekak eskaini dizkio hiriarri, eta balizko

museoa diseinatzeako nazioarteko arkitektura lehiaketa jarri du martxan. Ekainean aurkeztuko dute irabazlea, baina ikusi egin behar, diseinua harri bilakatu du den. Aurkakoak aldeko bihurtu beharko ditu datorren urteko bozketan. Ez da ezezkoa jaso duen Guggenheim bakarria Helsinkikoa. Rio de Janeiron ere baziren beste bat zabaltzekoak, adibidez, baina arte munduaren oposizioak geldiarazi zuten proiektua.



Berlin
15 urtez bale, gero kale

Guggenheimik txikiena zen: Berlinen bihotzean, 350 metro koadro hartzen zituzten areto sorta bat, funtsean. 15 urtez izan zen martxan museo, eta bi milioi bisitari izan zituen, orotara. 2012an itxi egin zituen atak, ordea. So-

lomon R. Guggenheim museoaren eta Deutsche Bank bankuaren artean jarri zuten martxan museo, baina 2012an, bere arte proiektu propioetan zentratzea erabaki zuten bankuak, eta amaitzat eman zuten Guggenheimekiko tratua. Bildumako piezak behar izan zuten. Ez da itxi den Guggenheim bakarria. Las Vegasen, eta New Yorkeko Sohokoan ere zarratu zituzten.



Abu Dhabi
Desertuko izarra

Bilboko halako bi izango da Abu Dhabiko Guggenheim museo. 30.000 metro koadro inguruko eraikina sortuko du Frank Gehry arkitektoak, eta 2017an egin nahi dute irekiera ekitaldia. Munduko Guggenheim museo-

rik handiena izango da, eta Guggenheim sareak dituen lanak erakustez gainera, pisu berezia eskainiko dio islamiar arteari eta Ekialde Hurbileko arteari. Saadiyar irlan eraikitzen ari diren kultur azpiegitura sare zabalago baten parte izango da Gehryk diseinutako museo. Boikot deia egin zuten 120 artista inguruk 2011n, eraikuntzan dabiltzan langileen egoera salatzeke.



New York
Sarearen erdigunea

Hor dago guztiaren jatorria. 1937an zabaldu zituen atak lehenengoz New Yorkeko Guggenheim museoak. Beste izen bat zuten orduan, eta beste kokagune bat, baina hura zen emamuina. 1954an aldatu zuen egoi-

tza, eta orduan zabaldu zuten Frank Lloyd Wright arkitektoaren eraikin zuri ezaguna. Ikono bat. Arte pieza bat eraikina bera. Izan da polemikarik, halere. Erakustokiak erakutsitakoari itzal egiten diola salatu dute maiz hainbat artistak. Hura izan zen lehen Guggenheim museo, halere, eta sare guztiaren zentroa da oraindik ere. Bilbokoaren, Abu Dhabikoaren eta Veneziakoaren abiapuntu. Horieta, oraingo.



ta daiteke irizpide horrekin ados ez egotea, baina behintzat badago kontaktuzun sendo bat sortzeko nahia. Eta eskatu behar dira kalitatezko irizpideak erosketak egitean». Hori Jaioren eskaera, hori eta hasierakoa: gardentasuna.

Merkatuaren gidaritza

Jaiok ikertua du Bilboko Guggenheimen kasua, eta haren ikerketaren arabera, kultura ulertzeko modua aldatzen lagundu zuen Guggenheim efektuak mundu osoan. Eta dioenez, ez da onuragarria izan aldaketa Euskal Herriko arte sarearentzat. Azaldu du zergatik. Ikertzailearen hitzetan, alde izan zuen haizea proiektuak sorreran. Arte garaikideak boom garaia zuten, hiri markaren ideiak gora egin zuten, eta agintariak sinesten hasi ziren kulturak eragin ekonomikoa izan zezakeela. Orokorra zen giroa, eta faktore guztiak egin zuten bat Bilboko Guggenheimen sorreran. Horrek bilakatu zuten ikur. Baina arantza ere bazekarren arrosak. Eraldatu egin zuten museoak ordu arteko ekosistema. Museo enpresa handiak bihurtu ziren lege, eta irizpide ekonomikoa gidari ia bakar. Eta horrek ekarri zuen ordura arte Euskal Herrian indarrean ziren bestelako kultur sorkuntza ereduaren gainbehera: merkatura errenditzeko eskatu zitzairen.

Baina 20 urteren buruan, akabo bidean da eredu hori, Jaioren ustez. Urperantz doa itsasontzi zaharra, eta formula berriak behar. «Bilbo bihurtu da paradigma zahar baten adibidea. Bartzelona ere izan zen kultur eta hiri-marka eredu horren adibidea, eta paradigma horren beharadarena adibide oso argia da egun. Bilbon ere lehen aldiz sinatu zenean hitzarmena, bete-betean zegoen kultura ekonomia suspertzaile izan zitekeeneko ideia hori, baina orain beste garai batean gaude». Eta garai hori harrapatzen asmatzea izango da orain eronka. Mahai gainean da negoziatzia.

